

Ready To Go (Zerbitzatzeko prest), XXI. mendeko workshop bat da

2008/09/09

Ready To Go saioan, partehartzaileak beraien negozioira zuzenduriko soluzio zehatzekin ateratzea bilatzen da. Horretarako metodologi berritzaile eta iraultzaile bat erabiltzen da, non partehartzaileak saioan ikasitakoa bere egunerokotasunean aplikatzera motibatzen diren.

Ready To Go soluzio zehatzak behar dituzten enpresei zuzendurik dago. Ready To Go saioan ez da erremediorik ematen, baizik eta enpresarekin erlazionaturiko edozein arazo mota nola ebatzi erakusten da.

Pep Torres eta Stereonoisek, bere asmakuntza eta kreatibitate estudioak, jardunaldi intentsibo hau izenpetu eta zuzentzen dute. Pep Torres eta bere taldeak mundu mailan negozio, tendentzi eta baita berrikuntza eta kreatibitatearen inguruan gertatzen ari denaren ikuspegi zehatz eta sakona dute.

Ready To Go ez zuk eta ez zure enpresak galdu ezinezko esperientzia bat da.

Urriak 8an Gandiaga Topagunean izango gaituzu.

Informazio gehiago behar izanez gero:

<http://www.mondragon.edu/ready2go>

